

IKASTOLA, HEZKUNTZA ERALDATZEN

110 IKASTOLA – 56.000 IKASLE

IKASTOLA. Euskal Herri osoan gaude, herrietan txertatuak, 110 ikastolatan; 4.500 irakaslek, 500 langile ez irakaslek, 56.000 ikaslek eta parte hartze zuzena duten haien gurasoek -gehienak kooperatibista dira eta- osatzen dugu ikastolen komunitatea. Eskaintza integrala; 0 urtetik hasita, Batxilergoraino eta Lanbide Heziketaraino. Hezkuntza eredu propioa ikasmaterialen sorkuntzan eta irakasleen prestakuntzan aitzindari izateaz gain, etengabe lanean dihardute hobekuntzan. Pedagogia aurreratu eta aurrerakoia, euskal curriculuma dugu ardatz eta oinarri. Hezkuntza euskalduna eskaintzen dute, eleaniztasun sendoz, eta aitzindari dira Informazio eta Komunikazio Teknologiaren erabileran. Bizia da ikastola.

Ikastola Eredua

- 110 ikastola eta 56.000 ikasle biltzen dira Ikastolen Elkartean. Ikastola bakoitzak bere historia eta ibilbidea ditu, eta bere inguruaren errealitatera egokituta dago; baina guztiok partekatzen dituzte ezaugarri garrantzitsuak.
- Ezaugarri horien multzoari deitzen diogu Ikastola Eredua.
- Haurra ikastolara datorren lehenengo egunetik, familiarekin bat egiten dugu umearen garapen afektiboa, emozionala, sentsoriala eta kognitiboa sustatzeko. Testuinguru lasai eta natural batean
- 0-6 etapatik hasita, beren burua eta ingurua ezagutzeko eta baloratzeko, eta bizitzan zehar izango dituzten erronkei eta arazoei irtenbide egokiak bilatzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkiegu ikasleei.
- Euskara eta euskal kultura, hezkuntza euskalduna da ikastolona. Ikasle euskaldun eleanitzak nahi ditugu, Informazio eta Komunikazio Teknologietan trebatuak.
- Gure hezkuntza eredu garatzeko ikas material propioak sortzen ditugu, eta etengabeko hobekuntzan eta prestakuntzan diharduen irakasle eta profesional talde handi baten eta guraso eta bazkide konprometituen gidaritzapean egiten dugu lan.
- Horrela lortu dugu ikastolok aitzindaritza pedagogikoa; geure-geureak ditugun ezaugarriekin lortu ere.
- Hori da gure eredu, hori da Ikastola eredu.